


B

BARREN

TOKIKOM



Burdinoletatik makina erremintara



*Ikasi eta lan...
zure txanda!*

**Aurrematrikula: ekainak 17
(1. deialdia)**

www.imh.es

Tel.943744132

Azkue Auzoa, 1

20870 Elgoibar

ikusi webeko bideoetan ikasleek kontatzen digutena ...

DEBABE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA

Nafarroa Plaza, 2

20870 ELGOIBAR - Tel./ Faxe: 943 742 731

elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net

Luardo Etxea, Sabanika aldapa, 4

20830 MUTRIKU - Tel.: 943 603 094

eusk.mutriku@udal.gipuzkoa.net

Iifar-kalea, 12

20820 DEBA - Tel.: 943 192 236

debabe.deba@telefonica.net



EUSKALTEGIS MUNICIPALES
EUSKARAREN
IRAKASKUNTZARAKO
ENTITATE OFIZIALA

DEBABE UDAL EUSKALTEGIRAKO LAN-POLTSA

Debabe Udal Euskaltegiak lan-poltsa osatu nahi du meritu-lehiaketa bidez.

Oinarriak honako helbideetan aurki daitezke:

www.elgoibar.org

www.mutriku.net

www.deba.net

www.udaleuskaltegiak.net

www.ikasbil.net

Eskaerak Elgoibarko egoitzan aurkeztu behar dira.

Aurkezteko epea: uztailaren 8a



Ainara Sedano



Noemi Otegi

Epa, Noe, kalean ez zaitut ikusten, beraz, hemen beharko du izan oraingo honetan ere gure hartu-emanak. Pasa den asteburua, aspaldiko partez, lagunekin pasatu nuen beste herri eta probintzi batean kokatutako etxe batean. Asteburu

oso osoa talde-terapia egiten, batez ere.

Pena da bizitzaren gora-beherak direla eta, (kokapen geografikoa, seme-alabak, lana, bikotea...) gero eta gutxiago elkartzen garela lagunok. Eskerrak, hala ere, noiz edo noiz lortzen dugula mundua alde batera utzi, eta denboratxo bat ateratzea guk pasa dugun moduko tarte ederra pasatzeko. Eta beti merezi izaten du. Gutxitan bada ere, jarrai bedi tarteka horrela izaten!

Gai guztiei egundoko errepassoa eman diegula sinetsi ezazu, eta probetxuzko ondorioak atera ditugula, baita ere. Auskalo, *filosofada* gehiegi edo bizitzako ikasgaiak izango ote diren.

“Gauza serioez aritzean beti saiatzen gara ingurukoak ez mintzen”

Gure bizitzan, gauza serioez aritzean, beti saiatzen gara ingurukoak ez mintzen, pentsatzen ditugun gauzak hitzetara itzultzean tentuz ibiltzen gara berba hauek gogorregiak suertatu ez daitezten, eta milaka desio eta amets betetzeke geratzen zaizkigu politiko edo sozialki zuzenak ez direlako. Eta eskerrak hauek behintzat bizi guztiko lagun onei konta dakizkiegula. Eskerrak! Politegiak, sakonegiak, larriegiak, gogorregiak eta utsuegiak lirateke isilpean betiko galtzeko. Bizitzan behin gutxienez ahoskatuko ez bagenu, tristuraz, amorruez edo isiltasunez lehertuko ginatke! Joaquin Sabinak dioen bezala, hauxe opa diet nire lagunei (zu bari): *No se me mueran nunca!*

Nabari da bai, asteburu sakona pasa duzula, eta gainera, primeran etorri zaizula! Azkenaldian, nagusiekin denbora gehiago pasatzeko premia ere sentitu izan dut. Duna zoragarria da, eta ordu dezente ematen ditut berarekin, baita eman nahi ere, ez nuke hori sekula aldatuko, baina noizbehinka nagusien mundura itzultzeko gogoia ere izaten dut. Horretarako, primeran etorri zaizkit haurren inguruan ezagututako lagun berriak, hauekin ere negar eta barre egiteko beta edukitzeak, liberezioa suposatzen du niretzat.

“Pentsamendu guztiak ahoskatzearen komenentziak hainbat duda dauzkat”

Hala ere, pentsamendu guztiak ahoskatzearen komenentziak hainbat duda dauzkat oraindik. Nik normalean denak botatzen ditut, pentsamendu izatetik, errealitate izatera pasatzen dira behalakoan, eta, hor dagoeneko, ez dago atzera bueltarik. Gaztelarazko esaera baten arabera, norbanakoa bere hitzen morroia da, eta bere isiltasunen nagusia. Isiltasunak ere hainbat esanahi ditu, entzun eta ulertu nahi duenarentzat. Horretarako isiltzen jakitea ere inportantea da.

Beraz, hitz egitea bezain inportantea da isiltzea. Betikoan gabilta oraingoan ere, tamaina hartu behar guztiari, eta hor dago koxka, neska! Tamaina, oreka, erdibideko puntu perfektua! Bilatzen dugun bitartean, ez zaitez gehiegi urrundu, eh! Gertu nahi zaitut eta, gure balantza erdiko puntuan geratzen denean!!

ESKERTZA

BEGOÑA BADIOLA JUARISTI



2011ko ekainaren 6an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.

Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,
Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA
Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz MAKETAREN
DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK
Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres
Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola,
Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai
Arrieta, Noemi Otegi, Aina Sedano, Jesus
Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes
Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa
Lendinez, Iñigo Lariz. INPRIMATEGIA Gertu
Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA
SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

'Egin dezagun bidea'

Egin Dezagun Urratsa lelopean, urtarilaren 8an 64.000 pertsona atera ginen kalera Bilbon. Han egin zen manifestazioak eta gaur egungo egoera politiko berri honek, herri mugimenduari ematen dio bidea, *Egin Dezagun Bidea* izenpean. Bide honek helburu garbi bat dauka: amnistia.

Eta tarteko geltoki finko batzuk: espetxe politika konponbide parametroetara pasa beharra. Hau da, muturreko egoeren berehalako indargabetzea, gaixo larriak eta kondena beteta dutenen kaleratzea, eta euskal preso politiko guztien Euskal Herriratzea.

Jakitun gara ez dela egun batetik bestera etorriko, pausoz pauso baizik, gizartearen inplikazio eta elkarlanarekin. Horregatik, *Egin Dezagun Bidea*-k dei egiten du, auzo, herri, hiri eta abarretan herri bilguneak sortzera. Ikasle, langile, gazte, jubilatua, irakasle, alkate, apaiz, abeslari, garbitzaile, kirolari... guztiok dugulako esateko edo egiteko, denok elkarlanean egingo dugulako bidea aurrerantzean.

Aldi berean, *Egin Dezagun Bidea*-k, alderdi politiko, sindikatu, eragile sozial eta instituzioen inplikazioa bultzatuko du euskal preso-aren eskubideak diskurtso politikoan tokia izan dezan.

Bide honen hurrengo urratsa, datorren ekainaren 12an, eguerdiko 12:30ean hasita, Guggenheimetik Arenalera egingo den manifestazio nazionalen emango da. Bukaeran, ekitaldi berezi bat eta egun osoko egitarau bat izango da. Elgoibartik autobusa egongo da, 11:30ean Txankakuako autobus geltokian. Animatu eta eman izena ohiko lekuetan.

Euskal preso eta iheslari politikoak etxera!

Egin dezagun bidea Elgoibarren ☺

Zorionak lagunak!

Aurtengo Herriarteko Txapelketan pilota eskolako gazteek eginiko lana goraiatu nahi dugu idatzi honen bidez. Lehenengo bi kanporaketak pasa ostean, maila oso ona erakutsi zuten herri arteko txapelketa horrenbeste aldi irabazi duen Azkoitiren aurka, nahiz eta azkenean ez lortu final erdiartarako txartela.

Azkoitiko frontoian izan ginenok izugarri gozatu genuen bertako giroaz. Frontoi ede-

rra, ikusgarria, eserlekuak goraino beteta eta ikusle guztiak beraien pilotariei animoak ematen partida guztian zehar. Halako irudi bat ikustea gustatuko litzazuke Elgoibarko herrian. Horretarako, ganorazko frontoi baten beharra dagoela garbi dago, Elgoibarren pilota sustatu, gazteak hobeto entrenatu, eta, zergatik ez, egunen baten Herriarteko finalen batera iritsi. Gazteen artean afizioa badago, eta kalitate ere bai.

Azkenik, Lagunak pilota eskolako kideak zoriondu nahi ditugu egiten ari diren lanagatik. Ea denon artean zerbait handia lortzeko gai garen!

Ganorazko frontoi baten alde!

10 bai ☺

Eskerrik asko

Mila esker txarangako kideei joan zen barixakuan jarri zuten giroagatik, eta baita ere, ekitaldira azaldu ziren guztiei.

Gazte Asanblada ☺

Ikastolaren Eguna

Mila esker Ikastolaren Eguna gogoz antolatzen lagundu duzuen guraso eta ikasle guztiei, eta, eskerrak, baita ere, txapela kentzeko moduko laguntza eman duten enpresa eta erakunde hauentzat: Nava inprimategia, Beristain logistika banaketa, Eroski bidaiak, Belaustegi jatetxea, Bankoa, Elgoibarko Udala, Armueta harategia, Pelegrin, Exclusivas Goria, Alzolako Urak, Goki Erreformak, Mausitxa baserria, Rosa liburudenda (Netto), Bakalaos Alkorta, Dori urdaitegia, Bera-Bera, Lanbroa taberna, Iriondo taberna, Caixa Cataluña, Rural Kutxa eta Euskadiko Kutxa.

Elgoibar Ikastola ☺

Eskerrik asko

Alkorta Forging Group taldeko jokalariek, delegatuek eta entrenatzaileak eskerrak eman nahi dizkiete denboraldi osoan zehar babesa erakutsi dieten zaleei, bereziki, azken partidetan egon direnei. Guztion artean taldea Bigarren Nazional mailara igotzea lortu dugu.

Alkorta Forging Group ☺

Balentziaga museoa inauguratu dute aste honetan, Getarian.

Begiratzen diozu markari jantziak erosterakoan?



Mari Mar Perez
34 urte, denda-saltzailea

Ez, prezioari soilik begiratzen diot. Banatuta nago, eta etxeko hipoteka ordaintzeko nahikoa lan daukat! Ahal dudanean soilik erosten dut arropa, eta ezin badut erosi daukadanarekin moldatzen naiz. Erosotasunari eta prezioari ematen diot garrantzia.



Ali Mohamed
31 urte, tailerreko langilea

Ez, niri berdin zait marka edo sinadura. Jantzien kalitatari begiratzen diot, eta merkea bada, hobe! Marka eta sinadura ezagunak asko ordaindu behar dira. Beharpenak aprobetxatzen ditut askotan jantziak erosteko, eta behar dudana soilik erosten dut.



Carmen Alamino
50 urte, etxeoandrea

Ez, prezioa hartzen dut kontutan, baina gustatzen zaidana erosten saiatzen naiz. Orain dela gutxi betaurreko batzuk gustatu zitzaizkidan, eta Dolce&Gabana markakoak ziren, garestiak, baina erosi egin nituen. Epeka ordaindu behar izan nituen, baina horrelako kapritxoak ondo etortzen dira.



Maria Jesus Arzuaga
53 urte, medikua

Normalean ez diot arropen markari begiratzen, baina batzuetan jantzi garestiren bat erosi izan dut. Gertatu izan zait jantzi bat hartu, eta markakoa izatea, garestiagoa, baina noizean behin kapritxo bat edo beste erosi beharra dagoela iruditzen zait.


SEMAFOROIA



Koltxoiak edo altzariak ezin dira zabortokira edozein egunetan atera: "Urasandiko bizilagunen batek tokatzen ez zen egunean bota zuen koltxoa zaborretara, eta hantxe egon zen egunak joan eta egunak etorri. Espaloi erdi erdian laga zuen gainera, eta traba handia egiten zuen. Horrelako gauzak zaborretara botatzeko egun eta ordu zehatzak daude eta baimena eskatu behar izaten da. Elkarbizitzarako arauak errespetatu behar dira."




Basarte auzoan oso gutxitan mozten dute belarra: "Oso ondo iruditzen zait herriko berdeguneak zaintzea, bereziki, errepide inguruak, baina gure auzoan belarra sarrigo moztea eskertuko genuke, udaberrian bereziki. Leihotearaino iristear egon den arte ez da inor etorri belarra moztera! Madalako errotondan loreak behin eta berri aldutzen dituzte, nahiz eta ondo egon, baina ezkutan geratzen diren auzoak ez dituzte kontuan hartzen".




Zuen kezak, galdurak edo txalokak bidaltzeko:
barran@egoibar.kolizarra.com 943 744 112

BURDINOLETATIK MAKINA-ERREMINTARA



Lacha y Juaristi. 1931ko argazkia (goian). Ezkerretik hasita: Francisco Juaristi, Felipe Juaristi "Ruso", Ormaetxea (eserita) eta Cesar Lacha. Beheko argazkian Carmelo Oiarzabal beharrean.



"Nora goazen jakiteko, komeni da nondik gatozen jakitea" atsotitzari kasu eginez, Burdinaren industriak Elgoibarren izan duen 500 urteko bila-kaera, burdinoletatik erreminta makinara, ezagutarazi nahi du Makina Erremintaren Museoak erakusketa batean.

Asier Orbea

Industri ondarea jaso eta ezagutarazteko asmoarekin sortu zuten, hain justu, museoa berora orain hamabi urte. Museora, baina, nahi eta merezi duena baino jende gutxiago, "elgoibartarrak batez ere", joaten direla uste dute museoko arduradunek. Hortaz, beste atsotitz bat aintzat hartuz, jendea museora hurbiltzen ez denez, museoa herritarrengana hurbildu nahi izan dute. Hala, "Burdinoletatik makina erremintara" izeneko erakusketa egongo da ikusgai herri erdian, Kultur Etxeko erakusketa gelan, ekainaren 10etik 25era bitartean. (Astelehenetik larunbatera, 19:00etatik 21:00etara)



“Arrastoa ireki eta finkatu zuten Elgoibarko olagizonak, forjariak eta aitzindariak omendu nahi ditugu”

PEDRO ORTUONDO

Burdinoletatik mikretara, eskuekin lan egitetik goi mailako teknologiarara. Burdinaren industriak 500 urtean egin duen jauzia, goiko bi argazkitan irudikatuta.

Burdinari lotutako herria

Burdinaren industriaren arrastoa ireki eta finkatu zuten Elgoibarko olagizonak, forjariak eta aitzindariak omendu nahi ditu Makina Erremintaren Museoak erakusketarekin. "Euskadiko armaginen eskualdean lanean jardun zuten beharginak, enpresariak eta industria-jarduera horrekin lotutako beste hainbat gizon gogorazi nahi izan ditugu", azaldu du Pedro Ortuondo museoko zuzendariak.

Iraganari gorazarre baina oraina ahaztu gabe. Izan ere, burdinaren industriak, orain ere lehen bezalaxe, gure herriko lan-jarduera bereganatzen duela nabarmendu du Ortuondok. "Goi mailakoa eta nazioartean ezaguna den jarduera", gaineratu du. Fabrikazio mekanikoan erabilitako prozesuen jatorria eta eboluzioa modu didaktikoan erakutsiko du erakusketak. Bost ataletan banatu dute mural nagusiko informazioa: Burdinolak, armagintza, lanbide heziketa, aitzindariak eta gaur egungo egoera



500 urteko atearen itzulera

Altzolatarren Dorretzeko jatorrizko forja-burdinezko atea egingo die ongi-etorria erakusketa ikustera Kultur Etxera hurbiltzen direnei. Gaur egungo atea igaro ostean orain 500 urte han egon zen atearekin topo egingo dute. Eraikina berri zutenean aurkitu zuten inguruko eraikin batean gordeta. Zaharberri ostean, museora eraman zuten. Orain, atearen bi zatietako bat ekarri dute Kultur Etxera. XV. mendeaz geroztik leinu argiko dorreetako sarreretan egoten ziren forja-burdinezko atea. Erdi aroan, defentsa moduan, eraikineko lehengo solairuan kokatuta egoten ziren, harrizko eskaileratetik edo aireztapeneko patioetik jotzen zelarik bertara. Geroago, XVI-XVIII mendeetan, beheko solairuetan kokatu zituzten, eraikinok baserri edo jauregi bihurtzean.

Pedro Ortuondo eta Pedro Andonagi, erakusketaren sustatzaileak, Bernardo Ezenaroren irudiarekin Makina Erremintaren Museoan. Atzean, Elgoibarko industria sortzen lagundu zuten aitzindarien argazkiak.



Bihar hartuko dute kargua zinegotzi berriek, eta haiek aukeratuko dute alkatea, bozketa bidez

EAJk eta Bilduk zazpina zinegotzi lortu zituzten maiatzeko hauteskundeetan



Artxiboko irudia

Bihar, ekainak 11, hartuko dute kargua zinegotzi berriek, 12:00etan egingo den Osoko Bilkuran. Ohi legez, hauteskunde egunetik hogeit egunera egingo dute, beraz, Udala Gobernu berria eratzeko osoko bilkura. Horretarako, Adinekoen Mahaia eratuko dute zinegotzi gazteenak eta zaharrenak, eta haiek izendatuko dituzte zinegotzi berriak. Kargua hartzeko, euren eginbeharrak zintzo beteko dituztela hitz eman beharko dute zinegotzietatik, Estatuko Funtsezko Arau gisa Konstituzioari men eginez.

Ondoren, datorren legealdirako alkatea aukeratuko dute, bozketa bidez. Zerrendaburu diren zinegotzi guztiak dira alkategai, eta boto gehien lortzen dituenak izango da alkate. Berdinke-ta egongo balitz, berriz, hauteskundeetan boto gehien jaso duen alderdiko zerrendaburuak hartuko luke kargua. Udalbatzako idazkariak boto-txartel bana emango die zinegotzietatik, eta haiek, aukeratutakoaren izen-abizenak idatzi beharko dituzte. Behin al-

katea aukeratuta, hilabeteko epea egongo da Udala berriaren egitura erabakitzeko.

EAJ eta Bildu, Elgoibarren berdinduta

EAJ alderdiak eskuratu zituen boto gehien (2.272) maiatzaren 22ko hauteskundeetan, baina zinegotzi kopuruan Bildu koalizioarekin berdinduta dago. Zazpina zinegotzi eskuratu zituen bakoi-tzak. PSE-EE alderdiak bi zinegotzi lortu zituen, eta PPk bakarra. Ezker Batua eta Aralar zinegotzirik gabe geratu ziren Elgoibarren.

Mendaron, berriz, Bildu koalizioak ezustekoa eman zuen. Botoen %48,12rekin gehiengo osoa eskuratu zuen, eta bost zinegotzi izango ditu. EAJk, beraz, lehenengo indarra izateari laga dio, eta hiru zinegotzi izango ditu datorren legealdian. PSE-EE alderdiak zinegotzi bat dauka. Mendaron ere 12:00etan hasiko da Osoko Bilkura.



Aizkora jokia ezagutzera emango du Ernesto Ezpeleta 'Bihurri' aizkolariak Pakistanen

Gutxitan ikusten den espedizioan hartuko du parte oraingoan Ernesto Ezpeleta *Bihurri* aizkolaria mendarorak. Aizkora jokia ezagutzera emateko asmoz, aizkora erakustaldiak egingo ditu Pakistanen. Erakustaldiak erakargarriak egiten saiatuko direla azpimarratu du Bihurrik. Saio horietan, abiaduran, kolpeka, esku bakarrarekin, zutika edo motozerrarekin egingo dute lan; «jendeari erakutsi nahi diogu hemen zer egiten dugun». Hala ere, aizkora jokia albo batera utziz, espedizio honetako berezitasunik handiena elkartasunaren ideian oinarritzen dela azaldu du Bihurrik.

Aizkolaria mendarorak Alex Txikon mendizale lemoarrarekin egingo du espedizioa. Espedizio hau amaitzean, mendizale bizkaitarra Gasherbrum I eta K2 mendiak igotzen saiatuko da.

Izena **Josean Gomez**



Josean Gomez Garrido elgoibartarra omendu dute aurtengo Mintza Praktika egitasmoaren barruan. Josean ikasle moduan hasi zen Elgoibarko Izarra Kultur Elkartek antolatutako *Tertuliak* programan (32 urterekin hasi zen euskara ikasten), eta urte batzuk euskara jasotzen eman ondoren, orain euskara ikasi nahi dutenen bidelaguna da. Merezitako saria jaso zuen, beraz, elgoibartarrak beste bost lagunekin batera. Elizondon ospatu zuten eguna joan zen zapatuan, eta guztia Euskal Herriko 270 lagun batu ziren. Elgoibartik, zazpi lagun joan ziren, guztiak, Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteko *Tertuliak* programako kideak.

Irudia **Motoen kontzentrazioa**

la 300 motozale bildu ziren joan zen domekan Elgoibarren, eta ikusmin handia iztu zuten Madalako aparkalekuan zeuden motoek (beheko argazkian). Goizean goiz bildu ziren motozaleak Madalan, eta gero, Zarautzera egin zuten irteera. Eguerdi alderan iritsi ziren herrira, eta herria zeharkatu zuten, herritar askoren begiradapean. Skull Riders taldeak antolatutako bosgarren moto kontzentrazioa izan zen. Eguerdian Madalan egin zuten bazkaria, eta ehun lagun inguruk hartu zuten parte. Argazki gehiago ikusteko: www.elgoibarren.net



Informazio mahaiak eta diru bilketa, minbiziaren kontra

Minbiziaren nazioarteko egunaren harira, informazio mahaiak jarriko dituzte bihar goizean King-Kong azpian eta Plaza Handian. Era berean, gaixotasunaren kontrako diru-bilketa egingo dute.

Udako euskara ikastaroak AEK euskaltegian

Elgoibarko AEK euskaltegiak uztailean eta irailean emango ditu eskolak iraileko azterketei begira. EGA zein HABEko azterketak presatzeko saioak eskainiko dituzte. Izena emateko edo informazioa eskatzeko AEK euskategira jo daiteke: 607 601 423 telefonora deitu edo elgoibar@aek.org helbidera idatzi. Izena emateko azken eguna ekainaren 24a izango da.

Sanmigeldarren eguna ospatuko dute domekan

Datorren domekan, ekainak 12, sanmigeldarren eguna ospatuko dute Aiastia-San Migel auzoan. 12:00etan meza nagusia egongo da hildako auzotarren omenez, eta meza ostean salda eta txorizoa banatuko dituzte. 13:00etan pilota partidak jokatuko dituzte Murkaikupe frontoian: Arribillaga-Kepa bikoteak Lizarralde-Txurruka izango du aurrez aurre. 14:30ean egingo dute bazkaria. Arratsaldean dantzaldia egongo da Elustondo anai-arrebeekin.

Eibarko musika bandaren kontzertua eta kalejira, domekan

Eibarko *Cielito* musika bandak Elgoibar bisitatuko du domekan. 11:00etan kalejira egingo dute, eta 12:30ean kontzertua emango dute Herriko Antzokian. Bost pieza joko dituzte: *De Andalucia a Aragon* pasodoblea, *La bruja* selekzioa, *El caserío* preludioa, *El fantasma de la opera* musikala, eta *La mascara del zorro* filmeko soinu banda.

Eskolara oinez eta alai

Bigarren ikasturterako boluntario gehiagoren beharra du Oin Alai ekimenak

Haurrek eskolarako bidea oinez egiteko sortu zuten Oin Alai, orain urtebete. Lehen urteurrena ospatzeko eta ekimena ezagutzera emateko Oin Alai berezia egin zuten, joan zen barixakuan (ekainak 3). Ikasleek irri artean egin zuten eskolarako bidea pailazo, malabarista eta hanka luzeen laguntzarekin. Mauxitxa txarangaren eta dultzaineroen doinuek, berriz, saltoka eta dantzan jarri zituzten guztiak.

Oin Alai ekimenaren sustatzaileak, Elgoibarko Udala eta ikastetxeak (Herri Eskola eta Elgoibar Ikastola) gustura daude oso ekimenaren lehen urtea nola joan den ikusita. Aurten 110 ikaslek parte hartu dute Oin Alai. Bigarren urtean, baina, egindakoari eutsi eta ekimenera ume eta boluntario gehiago batu nahi dituzte. Boluntarioen atala indartu nahi dute batez ere. “Funtsezkoak dira ekimena aurrera eramateko eta mimatu egin behar ditugu”, adierazi du Idoia Alvarez Agenda 21eko Udaleko teknikariak. Bi lan ildo sustatuko dituzte. Batetik, gaur egun dauzkaten boluntarioen lana eskertzeko, hilero 50 euroko erosketa txekeak zozketatuko dituzte datorren ikasturtean; eta, bestetik, boluntario gehiago lortzeko saiakera egingo dute. “Dauzkagunekin nola edo ahala moldatzen gara, baina gehiagorekin hobeto konponduko ginateke. Ibilbidearen adar konkretu batzuetan, San Roken, esaterako, boluntarioen beharra daukagu”. Boluntarioengana jo dugu, hain zuzen, euren lanaren berri izateko eta nola moldatu diren jakiteko.

Boluntarioekin berbetan

Jose Mari Igartua eta Ion Garate hasieratik daude Oin Alai. Igor eta Iraitz, bost urteko ilobak eramaten zituzten lehen eskolara. Tropel dezente handiagoaz arduratzen dira orain. Boluntarioen artean giro oso ona sortu dela nabarmendu dute biek, eta Oin Alai “inbento ona” dela diote. “Umeak pozik daude, eta gu, horrenbeste urte eta gero, eskolara bueltatu gara”, dio irribarrea ahoan Ion Garatek. “Neguan, eta eguraldi kaxkarra egiten duenean zertxobait gehiago kostatzen den arren, umeak formalak dira eta ondo konpontzen gara”, gaineratu dio Igartuak, Garatek esandakoari. Mila Fernandezek ere ikasturte guztia egin du boluntario moduan. “Lan-



gabezia geratu nintzen sasoi hartan, hain justu, eta izena ematea erabaki nuen”. Alde onak besterik ez dizkio ikusten honek ere Oin Alai ekimenari: “Trafikoa eta ikastetxe inguruetako auto pilaketak dezente gutxitu direla esango nuke; umeak pozik joaten dira eskolara eta boluntarioen artean ere giro ona sortu da. Afari bat egin behar genukeela ere entzun nion bati”. Alabaina, Oin Alai indarrean jarraitzeko boluntarioak inguratzea beharrezkoa dela uste du, eta izena ematera animatu nahi ditu herritarak.

Dune, zazpi urteko alaba eskolan lagaztetik zetorrela harrapatu dugu, bestalde, Mireia Garrido. “Alaba ez dago Oin Alai apuntatuta, baina datorren ikasturtean izena emateko asmoa daukat. Lan ikaragarria egin dutela uste dut eta ekimenak oso ondo funtzionatzen duela ikusi dut”.



Erretratu zaharra



1923

Aste honetako erretratu zaharra Pepe Arrillagaren seme-alabek ekarri dute BARRENEKO erredakziora. Aitaren erretratu albumetik ateratu dute argazkia, eta gutxi gora behera 1923 urtekoa dela uste dute. Errosario kalean aterata dago erretratua, kaleko jaietan hain zuzen ere. Garai hartan sekulako jaiak egiten omen zituzten Errosario kalean, eta argazki hau ikusi besterik ez dago horretaz konturatzeke. Erretratu honetan herritar guztiak dotore eta festaz gozatzen ageri dira. Aitari entzuna zioten Errosario kaleko jaietan ezkontza bat irudikatzen zutela, eta erretratu hau ekintza horretako dela uste dute. Urriaren 7an izaten da Errosario kaleko Ama Birjinaren eguna, eta gaur egun ere festa politak antolatzen dituzte.



*Ez dago ibairik, ez itsasorik,
jaso dugun guztia hartuko duenik.
Eskerrik asko, ama.*

RUDY MELGAR (Bolivia)

“Erretzeari lagatzeko teknika daukat, eta hiru laguni doan aplikatzeko prest nago”



Egunean bi zigarro pakete erretzen zituen Rudy Melgarrek Bolivian bizi zenean. Egun osoa zigarroa ahoan zeukala bizi zen, eta gainera, koka landarearekin nahasten zuen. Emakume batek erretzeari lagatzeko formula bat erakutsi zion, baina berak ez zeukan erretzeari lagatzeko asmorik. Orain dela sei urte laga zuen bere herrialdea 55 urteko gizon honek. Madrilerira iritsi zenean, bihotzeko gaixotasun bat zeukala esan zioten, eta medikuek tabakoa debekatu zioten. Erretzeari lagatzeko unea iritsi zela erabaki zuen, eta Boliviako emakumeak erakutsitako formulari esker laga zion erretzeari. Formula sekretua da, eta ez du kontatu, baina hiru elgoibartarri doan aplikatzeko prest dago. Baldintza bakarra erretzeari lagatzeko gogoia da. Hortik aurrera, borondatea eskatuko du. Rudyk ez dauka teknika honekin aberasteko asmorik, bere nahia jendeari laguntzea da.

Noiz eta nola erabaki zenuen zure herrialdea lagatzea?

Nik Nolibian baneukan lana, eta ez nintzen lan bila etorri. Eraikuntzako teknikaria nintzen, eta Hego Ameriketako lurralde askotan egin dut lan. Nire anai-arreba batzuk Espainian bizi ziren eta haiek bisitatzerira etorri nintzen orain dela sei urte. Madrilerira iritsi nintzen, eta han maitemindu egin nintzen. Orduan hasi nintzen lanean, erai-kuntzan. Bolivian neuzkan emaztea eta bost seme-alaba, eta irabaz-

ten nuen diruaren zati handi bat bidaltzen nien. Bi urte pasa zirenean kontatu nion hemen beste emakume bat aurkitu nuela. Bera urtebetez zebilen ordurako beste gizon batekin.

Sei urtetan, beraz, ez dituzu zure seme-alabak ikusi, ezta?

Bai, hala da, eta hori da gogorrena. Familia handia laga nuen Bolivian. 25 anai-arreben artean zaharrena naiz ni. Nire aita bost aldiz ezkondu da dago, eta nire ama bi aldiz. Hortaz, bi aita eta bost ama-



ren artean 25 seme-alaba dituzte. Une honetan bederatzi anai-arreba gaude Euskal Herrian. Lehen hamaika egon ginen, baina bi itzuli dira dagoeneko Boliviara.

Horrelako familia handiak ohikoak dira Bolivian?

Lehen bai, baina azken urteetan familiak txikiagoak dira. Nire aitona-amonon garaian lan asko zegoen Bolivian, eta egoera ekonomikoa oso ona zen. Seme-alaba asko edukitzeko ohitura zegoen orduan. Nire osaba-izebek hogeit hamar seme-alaba eduki zituzten.

Nola iritsi zinen Elgoibarrera?

Madriren ezagutu nuen emakumearekin neukan harremana amaitu zenean erabaki nuen handik irteera. Espainian zehar hainbat lekutan egon ondoren iritsi nintzen Elgoibarrera, orain dela bi urte. Nire arreba hemen bizi zen, eta haren etxera etorri nintzen. Ez neukan lanik, eta etxe bat alokatzeko dirurik ere ez neukan. Eraikuntzan egon nintzen lanean, baina krisiaren ondorioz lanik gabe geratu nintzen. Egoera zaila bizi izan dut, benetan. Lanik gabe nago, eta gaixorik. Orain arte ezin izan dut nire egoera legez tatu, baina badirudi nire gaixotasuna dela-eta, nazionalitatea lortuko dudala.

Zein gaixotasun daukazu, bada?

Chagas izeneko gaitza daukat. Vinchuca izeneko intsektu batek eragiten duen gaixotasun tropikala da. Bolivian jende askok dauka gaixotasun hori. Gu baserrian bizi ginen eta ganadurarekin egiten nuen lan. Arroza eta artoa batzen genuenean ohikoak izaten ziren intsektu horren ziztadak. Odola xurgatu eta kutsatu egiten dizu intsektuak. Horren ondorioz bihotza ohikoa baino handiagoa daukat, eta polikiago funtzionatzen du. Medikuek esan didate harriztuta daudela bizirik jarraitzen dudalako. Iazko abuztuan Boliviara joan nahi nuen, eta debekatu egin zidaten, hegazkinean bihotzekoak emateko arrisku handia nuelako. Gainera, Santa Cruz hirian bizi naiz ni, 1.800 metrora, eta leku garaietan bizitzea ez zait komeni. Ebakuntza egiten ditadenean itzuliko naiz Boliviara seme-alabak ikustera, baina ez naiz han geldituko, nahiago dut Euskal Herrian bizi. Hemengo bizi kalitatea hobea da. Bolivian hilda egongo nintzateke, baina hemengo medikuak oso onak dira. Bihotz transplantatea egiteko itxaron zerrendan nago. Gaixotasun hori dela-eta, minusbalioztasun papela lortuko ditut, eta horrekin batera, nazionanilateta emango didate.

Noiz jakin zenuen gaixorik zeundela?

Bolivian bizi nintzenean banekien Chagas gaixotasuna neukala, baina ez nekien bihotza horren gaizki neukanik. Azken urteetan handi-

tu zait. Eskerrak, behintzat, erretzeari utzi niola! Medikuek tabakoa debekatu zidaten, nire bizia arriskuan zegoelako, eta orduantxe erabaki nuen erretzeari lagatzea.

Nola lortu zenuen tabakoa lagatzea?

Bolivian bizi nintzenean emakume batek erakutsi zidan erretzeari lagatzeko formula bat. Asko erretzen nuela esan zidan emakumeak, eta laga egin beharko nukeela. Tabako fuertea erretzen nuen, koka landarearekin nahastuta. Hori droga bat da, eta lan asko egiten nuen, lanerako energia ematen zidan. Urdailerako oso kaltegarria da, eta Madrilera iritsi nintzenean urdaila garbitu behar izan zidaten. Oso gaixo nengoela esan zidaten, eta, gainera, telebistan ikusi nuen tabakoaren ondorioz gizon batek ahots-kordak galdu zituela. Orduan erabaki nuen Boliviako emakume hark erakutsitako formula aplikatzea.

Zertan datza erretzeari lagatzeko formula horrek?

Sekretu bat da, eta nahiago dut sekretua ez kontatzea, bestela, balioa galtzen du. Nirekin funtzionatu du, eta nik asko erretzen nuen. Ez-tarriko minbizia edukitzetik oso gertu nengoan. Hemen jende asko hiltzen da minbiziaren ondorioz, eta tabakoa oso kaltegarria da.

Aplikatu al duzu formula hori beste norbaitekin?

Bolivian bai, baina hemen ez. Jende askok ez dit sinesten, eta beste askok ez diote erretzeari laga nahi. Nire arrebak asko erretzen du, eta

esaten diot formula aplikatuko diodala, baina ezetz erantzuten dit, erretzea gustatzen zaiola. Konturatu ez arren, tabakoak osasunari min handia egiten dio.

Zenbat denbora behar da formula horrekin erretzeari lagatzeko?

Formula aplikatu eta zazpi egun erre gabe pasatzen dituenak, betirako ahaztuko du tabakoa. Formula honekin, astebetean erretzeari lagatzen zaiola ziurtatzen dut, betiere, erretzeari lagatzeko borondatea baldin badago, jakina. Baldintza bakarra erretzeari lagatzeko borondatea edukitzea da.

Ez al duzu inoiz pentsatu formula hori saldu eta betirako aberastea?

Ez. Tabako paketeetan jartzen du argi eta garbi tabakoak hil egiten duela, eta nik jendeari lagundu nahi diot. Ez dut honekin aberasteko asmorik. Formulari ez diot preziorik jarriko, bakoitzak duen borondatearen arabera ordainduko du.

“Formula aplikatu eta zazpi egun erre gabe pasatzen dituenak betirako ahaztuko du tabakoa”



Gremioen GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
www.biena.es
info@biena.es

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabillola - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Lelhoak

Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabillola - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.fjlodoso.euskalnet.net

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 25 45 22

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerrotza

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 7 · Mendaro
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Santana Iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

Zubizarreta Instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Autoentzako tindatutako kristalak

Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabillola
☎ 943 74 30 94



Sarrailagintza

Giltzak

Arragueta, 3 (Eibar)
☎ 943 701 391
www.giltzak.com



Proiektu eta erreformak

Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
Mendaro
☎ 659 934 964



Pinturak

Blok dekorazioa S.L.

Upaiz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ipintza

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87





ANGEL QUINTANA

Futbolaria

CD Elgoibarren bigarren taldeak denboraldi aparta egin du, eta Ohorezko Regional mailan jokatuko dute, estreinakoz, datorren denboraldian. Futbolean han eta hemen ibili ostean, iaz heldu zen taldera Angel Quintana (Elgoibar, 1983). Bertan aurkitu duen talde giroa igoera lortzeko gakoetako bat izan dela uste du.

**“Herriko jokalariekin
pazientzia handiagoa eduki
behar du CD Elgoibarrek”**

Ohorezko Regional mailan jokatu du estreinakoz CD Elgoibarren bigarren taldeak. Denboraldi bikaina egin duzue.

Bai, oso pozik gaude lortutakoaz. Denboraldia inongo helbururik gabe hasi genuen arren, emaitza onak iristen hasi ahala helburu handiagoak lortzeko gai ginela konturatu ginen, eta serioago hasi ginen. Astebarruko entrenamenduetara, esaterako, bost edo sei lagun bakarrik joan beharrean jokalaria guztiak agertu gara aurten, eta emaitzetan igarri da. Txapelketa apal hasi genuen, baina partiduak bata bestearen atzetik irabazten hasi, eta 17 bat partidu egin genituen jarraian galdu gabe.

Non dago taldearen indarra?

Santi (Pedro Santiago) entrenatzaileak jokalaria guztioi eman digun konfiantza eta jokalarion arteko batasuna nabarmenduko nituzke. Entrenamenduetan, partidetan, aldageletan zein parrandan talde bat osatu dugu. Esperientzia gehiago duten jokalariek gazteagoen berezko grina baretzen asmatu izana ere funtsezkoa izan da. Izan ere, lau edo bost jokalaria beterano kenduta talde oso gaztea daukagu; batez besteko adina 22 bat urte ingurukoa izango da.

Harmailetan ez zaizuela animorik falta izan entzun dut.

Halaxe da. Normalean ez da zaletu askorik igotzen Mintxetara, baina aurten jarraitzaile fidelak eta zaratatsuak eduki ditugu. Harreman berezia daukagu Alkorta eskubaloi taldekoekin, besteak beste, koa-drila berekoak direlako bateko zein besteko jokalaria. Hala, gu animatzera etortzen dira haiek eta eurak animatzera joaten gara gu.

Komunikabideekin eta klubarekin haserre agertu zarete. Kasu gutxi egin dizuetela adierazi duzue.

Ulertzen dugu Haundi dela lehen taldea, baina filialak egin duen den-

boraldi historikoak gehiago nabarmentzea merezi zuela uste dugu; bai komunikabideetan, eta baita klubaren aldetik ere. Ulertzen dugu, halaber, Haundi egoera hobean egon izan balitz merezi genuen arreta eskainiko zigula klubak, baina talde nagusiak ekartzen du dirua klubera, eta hari begira egon dira. Bestalde, igoera lortzeagatik agindutako prima eman digu klubak, eta eskertzekoa da hori. Afari eder bat edo asteburu pasa bat egingo dugu.

Nola ikusten duzu hurrengo denboraldia?

Talde historikoen aurka jokatu dugu: Bergara, Arrasate, Hernani... Alegia, lehen taldeen aurka, filialen aurka beharrean. Gogorra goa izango da, baina, era berean, erronka polita. Daukagun taldearekin lehiatzeko gai ikusten dugu gure burua. Uste dugu saria lortu dugun jokariok merezi dugula sariaz gozatzea. Izan ere, litekeena da zuzendaritzak laupabost jokalaria fitxatzeko asmoa izatea. Lehen taldean jokalaria elgoibartarrik ez dagoenez, jokalaria elgoibartarrez osatutako talde bakarrera kanpoko jokalaria ekartzeko beharrik ez dago. Talde nagusia Hirugarren Mailan eta bigarrena Preferentean daukan Gipuzkoako talde bakarra da Elgoibar, eta zuzendaritzakoei, beharbada, horri eutsi nahiko diote.

Erregionalak funtzionatzen al du Haundiren harrobi moduan?

Arlo horretan badago zer hobeturik. Herriko jokalariei kanpokoei baino aukera gehiago eskaini behar zaie. Haren edo honen erreferentziagatik fitxatzen dituzte, baina hona etorri arte ez dituzte ondo ezagutzen. Etxeko jokalaria, aldiz, txikitatik ezagutzen dituzte, baina eurengan konfiantza gehiago izan beharko lukete, eta aukera gehiago eskaini. Bertako jokalariekin pazientzia handiagoa eduki behar du klubak.

Alkorta eskubaloi taldeak Bigarren Nazional mailarako igoera lortu du

Azken segunduetan sartu zuen Alkortak igoera emango zion gola

Sanloko senior mutilen taldeak Bigarren Nazional mailan jokatuko du datorren denboraldian, Trapagaranen kontra 20na berdindu ostean. Igoera faseko azken partida jokatutako Alkorta taldeak joan zen asteburuan, eta estu eta larri lortu zuten maila igoera.

Partida guztian aurretik joan ziren elgoibartarrak. Bigarren zatia ondarrean, baina, markagailuari buelta ematea lortu zuten bizkaitarrek, eta 50 segundoren faltan, aurretik jartzea lortu zuten, 20-19. Emaitza horrekin Trapagararen eskuetan zegoen igoera. Alkortak garaipena, edo gutxienez, berdinketa behar zituen. Une horretan hutsartea eskatu zuen Juanma Lopez Alkortako entrenatzaileak (ondoko argazkian, partida amaieran). Hurrengo jokaldia erabakigarria izan zen: arbitroak elgoibartarren aldeko penaltia adierazi zuen, partida amaitzeko zortzi segundo bakarrik falta zirenean. Andoni Armendiak eduki zuen penaltia jaurtizteko ardura. Ez zuen hutsik egin eta partidua berdindu zuen. Azken zortzi segunduetan aurretik jartzeko jokaldi bat eduki zuen Trapagarango taldeak, baina ez zuen golik sartu.



Denboraldi amaierako jaia

Ekainaren 25ean egingo dituzte denboraldi amaierako jaia eta afaria Ikastolako frontoian. Lekua mugatua dela-eta, izena lehen bailehen emateko eskaera egin dute arduradunek.

Ume askok hartu zuten parte tenis jaialdian joan zen zapatuan



40-15 elkarteak tenis jaialdia antolatu zuen joan zen zapatarako, Kirol Patronatuaren laguntzaz. Divertenis enpresarekin elkarlanean, tenisean jokatzeak aukera anitzak izan zituzten 6 urtetik gorakoek, eta ume askok hartu zuten parte. Domekan, bestalde, ate irekien eguna egin zuten. Umeek tenis eta padelean jokatzeak aukera izan zuten Mintxetan, eta Patronatuko bazkideek muskulazio gela erabiltzeko aukera izan zuten. Olaizaga kiroldegiko igerilekuak ere herritarrentzako zabalik egon ziren.

'Elgoibar bi erroberatan' antolatu dute domekarako

Herri Eskolako guraso taldeak *Elgoibar bi erroberatan* egitasmoa antolatu du domekarako. 10:30ean irtengo dira Plaza Handitik eta Sallobentera joango dira bizikletaz. Ibilbidea Plaza Handian amaituko dute. Ondoren, Molto motoekin eta bizikleta txikiekin ibiltzeko zirkuito bat jarriko dute Plaza Handian etxeko txikientzat. Parte hartzaile guztientzat freskagarriak eta txorizo pintxoak banatuko dituzte.



Spinning maratoiarekin hasiko da bihar Mintxetako igerilekuen denboraldia

Edozein herritarrek hartu dezake parte maratoian



Bihar zabalduko dituzte Mintxetako igerilekuak, eta denboraldia behar bezala hasteko, spinning maratoia antolatu du Udal Kirol Patronatuak. Guztira, 40 bat bizikleta jarriko dituzte, eta 11:00etatik aurrera 45 minutuko hiru saio emango dituzte Kirol Patronatuko monitoreek. Izenematea doakoa da, eta edozein herritarrek hartu dezake parte. Kirol Patronatuak jakinarazi duenez, eguraldi txarra egiten badu, astebetez atzeratuko dute maratoia. Mintxetako igerilekuen inguruan hainbat erakustaldi antolatzeke asmoa du Kirol Patronatuak aurtengo denboraldian. Besteak beste, dantza latinoak, hip-hop-a eta giharren tonifikazioa lantzeko teknikak.

Igerilekuen ordutegia

Ekainean eta uztailean 11:00etatik 21:00etara egongo dira zabalik astegunetan, eta astebukaeretan, 10:00etatik 21:00etara. Abuztuan eta irailean, 11:00etatik 20:00etara lane-gunetan, eta jaiegunetan, 10:00etatik 20:00etara. Igerilekuak irailaren 11n itxiko dituzte.

Francisco Riverok auto telegidatuen Espainiako txapelketan hartu du parte



Francisco Rivero elgoibartarrak Espainiako auto telegidatuen txapelketan hartu zuen parte joan zen domekan, 1:6 eskalako autoen kategorian. Mendaroko Ospas Gain zelaian dagoen zirkuitoan izan zen txapelketa, eta Espainiako hainbat lekutatik etorritako 34 gidarik hartu zuten parte. Francisco Rivero final laurdenetan kanporatu zuten. Bi aste barru Euskadiko txapelketan hartuko du parte elgoibartarrak.

EMAITZAK

PILOTA

Herriarteko Txapelketa

Azkoitia 19 – Elgoibar 22 (Kad.)

Azkoitia 22 – Elgoibar 12 (Jub.)

Azkoitia 22 – Elgoibar 19 (Nag.)

Udaberri Txapelketa

Intxurre 22 – Lagunak 19 (Nag.)

10Bai Txapelketa

Agirrebeña 22 – Karmel 18

Armueta 22 – Sahatu 8

AGENDA

PILOTA

Barbakua, 10

17:00 Lagunak txapelketako finala

Elgoibar Herriarteko pilota txapelketatik kanpo

Elgoibarrek ezin izan du aurrera egin Herriarteko Pilota Txapelketan. Azkoitiren kontra jokatu zuen joan zen asteburuan final laudenetako itzulerako kanporaketa, eta hiru partidetatik bi galdu zituzten Elgoibarko pilotariek. Azken emaitza beraz, 4 eta 2 izan da azkoitiarren alde.

Mendi bizikleta irteera bihar, Morkaikorekin

Morkaiko mendizale elkarteak mendi bizikleta irteera antolatu du biharko, Kirol Patronatuaren laguntzaz. Elgoibartik Lekeitiora joango dira, eta bi ibilbide egongo dira aukeratzeko. Ibilbide erraza aukeratzten dutenak autobusez joango dira Munitibarreraino (bizikletak kamioian). 22 kilometroko ibilbidea izango da, eta antolatzaileen arabera, edonork egiteko modukoa. Ibilbide luzea, bestalde, 40 kilometrokoa da. Irteera Mintxetako BTT zentroan hasiko da. Ibilbide luzea aukeratzten dutenak 8:00etan irtengo dira, eta gainerakoak 9:30ean.

Nahi duenak Elgoibarko BTT zentroan bizikletak alokatzeko aukera izango du. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, Lekeition dutxa hartzeko aukera egongo da.

Napoka Iria eta Bikustik taldeek kontzertua eskainiko dute bihar

Madalan izango da musikaldia, 22:30ean hasita

Napoka Iria eta Bikustik taldeen musika emanaldia izango da zapatu gauean Madalako parkean, 22:30etik aurrera.

Ander Mujika elgoibartarrak eta Miren Narbaiza eibartarrak osatzen dute Napoka Iria bikotea. 2005ean sortu zuten taldea, eta ordutik, bi kitarra akustikoz eta ahotsaz baliatuz, kontzertu asko eskaini dituzte, bai Euskal Herrian eta baita atzerrian ere. Kantuak lasaia bezain progresibo eta rockeroak egiten ditu bikote honek. Zuzeneko emanaldiak berezi egiten saiatzen dira, ukitu handia emanez eta intentsitatearekin jotuz.

Bikustik bikotea, bestalde, Jon Gurutzagak eta Patxi Zabaletak osatzen dute. Kitarra espainiar bana hartuta, kontzertu akustikoak eskaintzen dituzte. The Beatles, Led Zeppelin, Queen



Napoka Iria



Bikustik

edota Chris Robinson-en abestien bertsiok eskaintzen dituzte, besteak beste, emanaldietan.

'Eurodancing 2011' dantza ikuskizuna gaur, Herriko Antzokian

Biraka dantza taldeak ikasturte amaierako jaialdia eskainiko du gaur, Herriko Antzokian. Hainbat musika estilo landuko dituzte, eta koreografia klasikoak zein garaikideak ikusteko aukera egongo da. Bi emanaldi egingo dituzte, lehenengoa 18:30ean, eta bigarrena 20:00etan.

Gazte Asanbladak irudi lehiaketa antolatu du

Gazte Asanbladak San Bartolome jaietako gazteen eguneko kamisetak apaintzeko irudi lehiaketa antolatu du. Lanak ekainaren 24rako laga beharko dira Gaztetxeko buzoian. Informazio gehiago eskuratzeko: elgoibarkogazteasanblada@blogspot.com.

Kale antzerkia, bihar

Tiritirantes konpainiak *Escuela de vuelo* kale antzerkia eskainiko du bihar. Hegan egiten irakastea izango da helburua. Plaza Handian hasiko da ikuskizuna 20:00etan, eta kale guztia zeharkatuko dute, Madalaraino.

Ikastolaren Egunean aukeratu zuten 50. urteurreneko logoa



Elgoibar Ikastolak 50 urte egingo ditu 2012an, eta Joan zen zapatuan ospatu zuten Ikastolaren Egunean aukeratu zuten logotipo lehiaketako irabazlea: Aitziber Dominguez. Jaialdian 330 lagun inguru batu ziren, eta besteak beste, buru handiak, puzgarriak, haurrentzako jolasak eta dantzaldia izan ziren.

Ikasturte amaierako jaialdia egin zuten Herri Eskolan



Herri Eskolako ikasleek ikasturte amaierako jaialdiak egin zituzten joan zen astean. Herri Eskolako patio estalia artista txikien eszenatoki bilakatu zen. Guraso eta irakasleen aurrean erakutsi zuten dantzarako eta antzerkirako dohainak badituztela. Bi egunez egin zituzten jaialdiak.

Urban Show jaialdia iragartzeko bideoa grabatuko dute bihar

16:00etan hasiko da grabazioa, San Bartolome kalean



Hip-hop eguna antolatu du Maria Escobedo Dance&Smile taldeko arduradunak biharko, Kultura Sailaren eta Kirol Patronatuaren laguntzarekin. Zalantzarik gabe, bazkal ondorenean San Bartolome kalean egingo duten grabazioa izango da eguneko ekitaldirik garrantzitsuenak: Urrian egingo den Elgoibar Urban Show hip-hop jaialdiaren bigarren edizioa iragartzeko bideoa grabatuko dute. Grabazioa 16:00etan hasiko da San Bartolome kalean, eta antolatzaileen nahia kalea jendez betetzea da. Maria Escobedok azaldutakoaren arabera, ez da beharrezkoa dantzan egiten jakitea, eta adin guztietako herriarrak gonbidatu ditu grabaketara.

Egitaraua

Hip-hop kultura sustatzeko egitaraua prestatu du Maria Escobedok, eta goizean goiz hasiko dira ekitaldiak. 10:00etan break dance ikastaroa eskainiko dute kiroldegian, 6tik 12 urtera arteko gaztetxoentzako. 12:00etan Dance&Smile Elgoibarko hip-hop taldeak dantza erakustaldia eskainiko du, eta horren ostean bazkaria egingo dute.

Marina Gabiolak irabazi du Trinitateetako danborrada iragartzeko kartel lehiaketa



Marina Gabiola Colina elgoibartarrak irabazi du Trinitate jaietako nagusien danborrada iragartzeko kartel lehiaketa. Astelehenean egin zuten sari banaketa, eta Gabiolak 300 euroko saria jaso zuen. Sari banaketa ekitaldian Iñigo Zearsolo kultur zinegotziak eta Juan Carlos Arrieta Danborradaren Elkarteko kideak hartu zuten parte. Lehiaketaren seigarren edizio honetan bost lan aurkeztu dituzte.

Trinitateetako nagusien danborrada ekainaren 18an izango da, 23:30ean. Plaza Handian hasiko da, eta herri guztia zeharkatuko du.

Maddi Mendibilek irabazi du Eskolarteko Bertso Txapelketa

Maddi Mendibil elgoibartarrak Gipuzkoako Eskolarteko Bertso Txapelketa irabazi du gaztetxo mailan. DBH2. mailako kanporaketan hartu zuen parte. Maila honetan taldeka jokatzeko txapelketa, eta Maddi Mendibilek Goierriko beste hiru bertsolarekin osatu zuen taldea. Finalean Lazkaoko bi talde eta Zarauzko talde bat izan zituzten aurrez aurre. Era berean, bertso paperen atalean aipamen berezia jaso du elgoibartarrak.



Mikel Olaizola Gipuzkoako Bertso Txapelketatik kanpo geratu da

Mikel Olaizola Gipuzkoako Bertsolari Txapelketatik kanpo geratu zen joan zen astean. Bertsolari elgoibartarra final zortzirenetarako sailkatzetik hiru puntura geratu da. Olaizolak berak adierazi duenez, esperientzia probatzeko asmoz sartu zen txapelketan, baina hurrengo faseko gertu, baina aldi berean, kanpoan geratu izanak pena eman diola aitortu du. Oro har, txapelketaren balorazio positiboa egin du Mikelek.



LANA

ESKAERA

- Txoferra eskaintzen da, B1 gida baimenarekin. ☎ **650 538 274**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Orduka. ☎ **689 658 471**
- Emakumeak garbiketa lanak egin, edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. Orduka. ☎ **646 506 777**
- Emakumeak garbiketa lanak edo pertsona nagusiak zainduko lituzke. ☎ **663 115 241**
- Neska lan bila dabil, nagusiak zaintzen esperientzia handia. ☎ **636 581 194**
- Emakumea pertsona helduak zaintzeko prest. Esperientzia eta erreferentzia onak dauzkat. ☎ **699 813 826**
- Emakumea gauz pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest. Interna edo orduka. ☎ **689 273 664**
- Emakumea lanerako prest. Pertsona nagusiak zainduko nituzke edo sukaldari laguntzaile bezala jardungo nuke. (Orduka edo asteburuetan). ☎ **689 273 664**
- Edozein motako garraio lanak egiteko prest nago. Furgoneta handia daukat. ☎ **628 512 278**
- Emakumea pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko prest. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. ☎ **648 603 029**
- Emakumea lan bila. Nagusiak nahiz umeak zainduko nituzke. ☎ **685 212 060**

ESKAINZA

- Zerbitzari euskalduna behar da jatetxerako. ☎ **943 121 262**

- Sukaldaria behar da Eibarren lan egiteko, esperientziaduna. ☎ **620 674 529**

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA ETA SALMENTA

- Etxe berria salgai Urruzunon. 3 logela, bi komun, egongela-jangela, terraza eta sukaldea altzariekin. ☎ **676 404 365 / 689 621 164**
- Etxebizitza alokatzen dut Deban, uda denboraldirako. ☎ **680 560 981**
- Gizonezkoak logela hartuko luke alokairuan. ☎ **648 787 786**
- Etxea salgai, prezio interesgarrian. ☎ **688 658 183**
- Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **686 420 642**
- Emakumeak pisua hartuko luke Elgoibarren alokairuan. ☎ **698 390 818**
- Neska bi logelako pisua alokatuko luke Elgoibarren. ☎ **626 641 318**
- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **698 390 818**
- Neska batek etxea hartuko luke Elgoibarren alokairuan. ☎ **697 735 046**
- Etxebizitza alokagai Pedro Muguruza kalean. Bi logela, guztiz erreformatua eta altzariz hornitua. 590 euro hilean, kontratuarekin. (Juan) ☎ **659 304 159**

GARAJEAK

- Garaje itxia alokatzen dut Jausoron, ate automatikoarekin. ☎ **663 409 726**

- Garaje marraduna alokagai Leku Ederren, laugarren solairuan (55€). ☎ **660 042 159**

AUTOAK

- Mercedes Vito furgoneta salgai, weskalia eta abantze berriarekin. 16.000 euro. ☎ **665 708 756**

BESTELAKOAK

- Taberna traspasatzen da San Frantzisko kalean. ☎ **687 051 789**
- Bigarren eskuko *kuatrozikloa* (gida baimenik gabe gidatzeko autoa) erosiko nuke. ☎ **699 706 798 (Nerea)**
- Elena izena daraman urrezko eskumuturrekoa galdu dut. Oso estimatua nuen, mesedez aurkitu duenari udaltzaigoetan uzteko eskatzen diot.
- Alemanierazko klaseak ematen ditut. Adin guztientzako ematen dira klaseak, haur, gazte eta helduentzako. ☎ **670 793 312**

KINTOAK

- 1953ko kintoek bazkaria egingo dute ekainaren 18an, Gabi jatetxean. Nahiz duenak bikotea eraman dezake. Izenematea Castrillejo estankoan, ekainaren 14rako.

euskararen bideak

UDAKO ESKAINZA

aek

**AEK EUSKALTEGIA
PLAZA TXIKIA 3, 1.
Tel.: 607 601 423
elgoibar@aek.org**

3. maila = EGA

Izena eman ekainaren 24a arte

Ikasleek, gurasoek eta langabetuek matrikula erdia Udalari esker

Iraileko azterketak prestatzeko eskolak

Uztailean eta irailean



• Zorionak, **Nerea**, ekainaren 14an 5 urte egingo dituzulako. Etzekoen eta bereziki, Ane eta Lolitaren partez.




• Zorionak, **amal** Oso ondo pasa zure egunean! Ez zenuen espero, ezta? Aitaren, Aidaren eta bereziki, Tamaren partez.



• Zorionak, **Esther**, 4 urte egin dituzulako. Aiton-amonen partez, muxu handi bat.



• Zorionak, **Endika**, bihar bi urte beteko dituzulako. Patxo handi bat Markelen partez.



• Zorionak, etzeko **printse**, gaur 3 urte bete dituzulako! Etzekoen eta lagunuen partez, bereziki, aittita eta amamaren partez.



• Zorionak, **Antonio eta Benel** 50 urte pasatu dira ezkondu zinetenetik! Segi horrela luzaroan. Muxu handi bat familiako guztien partez.



• Zorionak, **maitea** gaur 2 urte egin dituzulako. **Jone**, muxu handi bat denon partez.

Erretratu bakarreko agurra: 3 €. Argazki bikoitza: 5 €. Hirukoitza: 7 €. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu.

BARREneko bulegora 12:00ak baino lehen, edobarren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

OSPAKIZUNAK KINTOAK



Oso ondo pasatu genuen 60 urtekoen kinto bazkarian. Eskerrik asko etortzeagatik, eta bi urte barru berriz elkartuko gara!

10 barixakua

Aisialdia

17:30 Kiribilka

Elgoibarko Izarrak antolatuta, Plaza Handian.

Erakusketa

19:00 "Burdinoletatik makina erremintara"

Hilaren 25era arte egongo da ikusgai, Kultur Etxean.

Dantza

18:30 eta 20:00 'Eurodancing 2011'

Biraka dantza taldearen ikasturte amaierako dantza emanaldia. Herriko Antzokian.

11 zapatua

Informazio mahaiak

11:00 Minbiziari buruzko

informazio mahaiak

King-Kong azpian eta Plaza Handian.

Dantza

16:00 Urban Show

ikusgizunerako bideo grabaketa

Dance & Smile hip-hop taldeak antolatuta. San Bartolome eta Errosario kaleetan.

Antzerkia

20:00 Kale antzerkia

Plaza Handian hasi eta Madalaraino.

Musika

22:30 Kontzertua

Bikustik eta Napoka Iria taldeen kontzertua, Madalako parkean.

12 domeka

Autobusa

11:30 Egin dezagun bidea

ekitaldirako autobusa

Txankakuako geltokian. Itzulera 18:30ak aldera.

Kirola

10:30 Elgoibar bi erroberatan

Herri Eskolako guraso taldeak antolatuta, Plaza Handitik Sallobentera joango dira bizikletaz.

Kirola

11:00 Xake txapelketa

Eskolarteko xake txapelketa, Plaza Handian.

Ospakizuna

12:00 Sanmigeldarren Eguna

Meza, pilota partidak eta bazkaria egingo dituzte. Ondoren, erromeria egongo da. Aiastiako pilotalekuan.

Musika

12:30 Kontzertua

Eibarko Cielito bandaren kontzertua, Herriko Antzokian. Aurretik kalejira egingo dute.

OKINDEGIA

12 domeka EIZAGIRRE

FARMAZIAK (24 orduz)

- 10 Ibañez
- 11 Garitaonandia-Bidasolo
- 12 Garitaonandia-Bidasolo
- 13 Etxeberria (Santa Ana)
- 14 Fernandez
- 15 Yudego
- 16 Zabaleta
- 17 Etxeberria (Santa Ana)

Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez- Rekalde, 1 (Soraluze)

Tel: 943 751 638

Zabaleta- Kalebarren, 9

(Soraluze)
Tel: 943 751 384



Ekainaren 15ean,

19:30ean,

guraso bilera Ludotekan!

Urteko balorazioaz zein
urdaldiko irteerez hitz egingo
dugu. Itxaroten zaituztegu!

Gaztelekuko Futbol 7

txapelketa Mintxetan,

ekainaren 25ean.

Zortziko taldeetan.
Izenematea ekainaren
15era arte luzatu dugu.



GRAN SIGLO jatetxe txinatarrak
Upaiz zaharra kalea, 3 behea - 20870 Elgoibar - Tel.: 943 031 185

Taberna BERRIA ireki dugu!

Zure etxera eramaten dugu eskatutako janaria!
(12€ baino gehiagoko gastuarekin)

EGUNEKO MENUA 7,50 € gatik!

Ileapaindegia • Estetika • Solarium-a

Idama

Maiatzeko irabazlea:
EVA RODRIGUEZ

Ekaineko saria:
PLANTXAK

Antonio Arrillaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik)
Tel.: 943 74 40 26

ALOKAIRUAN,
baina erosteko
aukerarekin!

**Aukera ezin hobea
aprobetxatu!**



- ✦ Etxebizitza BERRIAK
- ✦ Banco Guipuzcoanok finantzaturako obra
- ✦ Berahala eskuratzeko aukera
- ✦ Egungo etxebizitza saltzeko helburuarekin erosketarako aukera
- ✦ Bi etxebizitza-eredu bisitatzeko aukera
- ✦ Horma-armairu eta guztiz hornitutako sukaldearekin

230.000 €tik aurrera
garajea eta
trastelekua barne



Santa Klara kalea, 32 C - Behe solairua B
Tel. 943 74 44 67

ELGOIBAR

Asto-kaka

BARRENen aldeko jokoa



AURKEZPEN-EKITALDIA

Ekainak 17, ostirala, 19:00etan,
Nafarroa plazan

*Gonbidatuta zaudete
BARRENzale guztiok!*